Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Euskal Udalekuak: Etxarri-Aranazko topaketa

Etxarri Aranatz, Nafarroa



Aurkibidea

Biografia



"Euskal Udalekuak" taldeak Urdirotzen etxea alokatu zuenean, Sakanako talde batek jardun zuen luzaroan etxea atontze lanetan. Etxarri-Aranazkoak ziren asko. Langintza horretan eta beste batzuetan ibilitako bost pertsona bildu ziren Etxarrin 2013ko martxoaren 21ean. Bideoan ezkerretik eskuinera: Patxi Auzmendi Sanzol, Txomin Garziandia Goñi, Fermin Ijurko Igoa, Paulo Zabala eta Patxi Maiza Barandalla.

Zintak

ETX-042

- **Proiektua**: Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Plazaola Otadui, Estepan
- **Data**: 2013-03-21
- **Iraupena**: 92 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Fermin Ijurko, begirale Antzinen eta etxe bila Agoitz aldean

- **Erref**: ETX-042/002
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:06:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Fermin Ijurko. 1975an Antzinen hasi zen. Bi urtez begirale. Etxeak begiratzen Goñi eta Aoitz aldean. Pablo: Urdirotz, baino lehen Zanduetan, Nagoren eta Itoitzen ikusi zituzten etxeak.

2. Zanduetan, Nagoren eta Itoitzen etxeak ikusten

- **Erref**: ETX-042/003
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:06:48. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Pablo Zabala. Ferminekin batera etxe bila Agoitz aldean. Zanduetako Kamineroen etxea zegoen libre; gerora "Proyecto Hombre"koek hartu zutena. Ez zien eman diputazioak "reboltoso samarrak" zirelako. Nagoreko etxe bat ere begiratu zuten, egoera onean zegoena, baina ez zuten lortu. Itoitzen beste bat, baina txikia.

3. Pikatxoiz eta palaz Urdirotzeko bidea konpontzen

- **Erref**: ETX-042/004
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:12:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Pablo: azkenean Urdirotzeko etxearekin geratu ziren. Bidea konpontzen lan ikaragarria. Fermin: Amadeo Marco diputazio-buruarekin ere egon ziren. Hitza eman zien bidea konponduko zuela, baina ez zuen bete. Pikatxoia, pala, zapalgailua... lan asko egin zuten bidea konpontzen. Errekatik hondarra atera eta bideko zuloak bete zituzten. Agoitzeko jendeak ere lagundu zuen. Gurdibidea zegoen herrira. Urtero berritu behar zuten, neguan hondatu egiten zen eta. Auto asko alferrik galdu zuten bide negargarri hartan. Izan ere, goraino zamatuta eramaten zituzten.

4. Etxarri aldeko jende asko lanean Urdirotzen

- **Erref**: ETX-042/006
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:13:18. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Domingo Garzionandia Goñi, Etxarrikoa. Igeltseroa. Obretan jardundakoa. Mahaian ez dagoen jendea ere ibili zen. Igandero-igandero joaten ziren.

5. Udalekua martxan jarrita gero obretan lanean

- **Erref**: ETX-042/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Patxi Auzmendi 'Gadafi'. Obretan ibilia Gaforekin batera, baina ez hasieran, Urdirotz martxan jarrita gero baizik. Bigarren fasean, 1988-89 inguruan.

6. 1977tik 1982ra arte atontze-lanetan

- **Erref**: ETX-042/008
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:18:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Bost edo sei urte igaro ziren etxea hartu eta udalekua martxan ipini arte. 1977koa da alokairu-kontratua eta 1982an sartu zen lehen txanda. Ihazintok presa sartzen zieten, baina ezin zuten azkarrago joan. Zenbait anekdota eta kontu daten gorabeheran. Alokairu-kontratuei buruzkoak. 40 urterako alokatu zen.

7. Oso egoera txarrean zegoen baserria

- **Erref**: ETX-042/011
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:21:32. **Bukatu**: 00:23:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Paulo: baserria zaharra zen, oso gaizki zegoen. Sukalde txikia ganbaran. 'Estarbia' (ukuilua) eta ezkaratza batera. Bi metroko desnibela. Betelana egin zuten berdintzeko.

8. Etxea urez hornitzeko lanak

- **Erref**: ETX-042/013
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:24:12. **Bukatu**: 00:26:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Ur-depositoa garbitu, txukundu, zanga zabaldu, mila metroko plastikozko hodia sartu... Lan handia. Soroetan zanga sakon-sakon egin zuten, traktoreek ez ukitzeko. Eta buruzagia, Ihazinto jauna, beti atzetik, ea noiz bukatu behar zuten esanez.

9. Hasieran dena norberaren poltsikotik

- **Erref**: ETX-042/015
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:26:45. **Bukatu**: 00:28:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Hasieran euren poltsikotik joaten zen dena, baina gero milioi bateko kreditua eskatu zuten 100 abaldunen bermearekin. Gerora, kilometroena eta abar, zerbait kobratzen zen.

10. Taberna eta tonbola dirua ateratzeko

- **Erref**: ETX-042/016
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:28:31. **Bukatu**: 00:29:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Herriko festetan taberna jarri zuten Urdirotzeko etxean. Oso giro ona jarri zuten eta gainera diru apur bat atera ere bai. Beste urte batean, tonbola jarri zuten Etxarrin Urdirotzerako dirua ateratzeko.

11. Etxea zabaldu aurreko lanak eta presak

- **Erref**: ETX-042/018
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 00:29:36. **Bukatu**: 00:32:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Agoitzeko jendearekin berehala egin zuten harremana. Bi etxarritar andereño zeuden Agoitzen eta horrek asko erraztu zituen gauzak.Zenbait Agoiztarren izenak. Martxan jarri behar zeneko garaian beste ganora bat egon zen obretan. Donostiako eta Lazkakoko jendea sartu zen. Izan ere, aurretik, ez zen halako presarik ikusten eta lana bai, baina parranda egitea ere nahi izaten zen.

12. Lurrean su eginda jatorduak prestatzen

- **Erref**: ETX-042/022
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:34:56. **Bukatu**: 00:38:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Pozo septiko berria, komunak, jangelak... egin zituzten. Lanean ari zirenean, jatorduak aldameneko borda batean egiten zituzten. Sua lurrean egin eta parrillan prestatzen zuten jana, ijitoak bezala. Lo zakuetan lurrean. Elizako Dorrean bazen ezkila, eta hura joz esnatzen zuten jendea.

13. Euskal giroa eraman zuten eskualdera

- **Erref**: ETX-042/023
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:38:25. **Bukatu**: 00:41:50

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Lan asko, baina oso ondo pasatzen zuten. Egundoko giroa sortzen zuten Auritzera (Burgete) joaten zirenean. Herriko eta Garraldako jendearekin elkartzen ziren, eta tabernaz taberna kantuan, guardia zibilak ere atzetik zituztela. Euskalzaletasuna eta abertzaletasuna euren bidez sartu zen neurri batean eskualdean. Gastu handia egiten zuten Agoitzen, han egiten zirelako erosketa gehientsuak. Larunbatetan joan ohi ziren gehienak lanera, urte guztian zehar.

14. Sakanar asko obretan lanean

- **Erref**: ETX-042/025
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:43:05. **Bukatu**: 00:44:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Sakanako asko ibili zen lanean. Iturmendiko talde bat ere bai. Arbizuarrak asko. Iturgina Iruñekoa zen. Hodiarekin izandako gorabeherak

15. Agoitzeko ikastolakoak eta Ortzadar Taldekoak egunak pasatzen

- **Erref**: ETX-042/027
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:45:17. **Bukatu**: 00:46:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Etxea ireki aurretik Agoitzeko ikastolako haurrak joan izan ziren inoiz egun bat edo beste pasatzera. Iruñeko Ortzadar Taldekoak ere bai.

16. Hasieran Lizarrako igeltsero baten laguntza izan zuten

- **Erref**: ETX-042/029
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:47:15. **Bukatu**: 00:49:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Hasieran Lizarrako 'kisuzgin' bat (igeltseroa), Etxarri abizenekoa, ibili zen lanean. Hormigonera ere laga zien. Oso jatorra. Baina gorabehera politikoak zirela bide, utzi egin zuen lana.

17. Urdirotzeko festak antolatzen

- **Erref**: ETX-042/034
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:54:20. **Bukatu**: 00:56:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Herriko jaiak antolatu zituzten urte batean. Iragarkiak ipini zituzten inguruko herrietan. Musika, sokatira. Sekula ez omen da hainbeste jende bildu Urdirotzen. Gau batean 300.000 pezetako kaxa egin zuten tabernarekin.

18. Etxarrin tonbola jarri zuten

- **Erref**: ETX-042/037
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 01:01:29. **Bukatu**: 01:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Etxarrin tonbola jarri zuten dirua ateratzeko. Panpina pila bildu zuten. Festa guztiak tonbolari lotuta pasatu zituzten. Dirua eman zuen baina ez gehiegi.

19. Euskararen aldeko militantzia bultzagarririk handiena

- **Erref**: ETX-042/040
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:05:40. **Bukatu**: 01:08:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Patxi 'Gafo'. Berarentzat ilusioa bezain inportantea izan da euskararen aldeko militantzia. Obrako materialarekin apur bat "estraperloan" ibiltzen ziren.. Burgeteko dantzalekua eraikitzen ari zirenean, inoiz hango materiala eskuratzen zuten etxeko obrarako. Zenbait komeria.

20. Argia sartzea ez zuten lortu

- **Erref**: ETX-042/042
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 01:09:53. **Bukatu**: 01:11:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Argia sartzen ahalegindu ziren, baina ez zuten lortu. Nafarroako argindarraren buruarekin ere bildu ziren. Hitz onak, baina ez ziren gauzatu. Administrazioaren aurrean ez zuten inolako indarrik. Oztopoak bakarrik aurkitzen zituzten.

21. Ikurrina balkoian

- **Erref**: ETX-042/045
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 01:16:11. **Bukatu**: 01:17:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Etxearen hasierako irudiak, ikurrina eta guzti. Guardia zibilek tiroz bota omen zuten teilatukoa. Gero balkoian jartzen hasi ziren. Handik ere harrapatzen zuten. Sukaldeko gauzak ere eramaten omen zituzten.

22. Lehengoek ondo erantzun zuten, baina oraingo gazteek ere bai

- **Erref**: ETX-042/047
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 01:19:47. **Bukatu**: 01:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Gafo: jendeak oso ondo erantzuten zuen lanerako orduan, zahar eta gazte. Beste garai batzuk ziren, ezin dira gaurkoekin konparatu. Oraingo gazteak ere erantzuten dute, euskararen aldeko kontuetan, esate baterako.

23. Militantzia, ilusioa, gogoa... euskararen alde

- **Erref**: ETX-042/049
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 01:20:47. **Bukatu**: 01:21:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Paulo Zabala: militantzia, ilusioa, gogoa zegoen euskararen alde lan egiteko. Eta oso pozik dago egindakoarekin.

24. Abertzaletasuna gori-gori zegoen garaia

- **Erref**: ETX-042/050
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:21:16. **Bukatu**: 01:22:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Fermin: abertzaletasuna gori-gorian zegoen. Kantak, kartzelatuak... edozein gauza eskatu eta jendea prest zegoan. Paulo: Etxarriar asko Udaberri Taldekoak ziren.

25. Kobratuta izan balitz, agian ez zuketen egingo

- **Erref**: ETX-042/052
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 01:23:54. **Bukatu**: 01:24:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Txomin: adina ere ona zuten. Lana zegoen eta ilusioa. Egindakoarekin pozik, harro. Gero urte mordo batean jende askori ondo etorri zaio egindako lana. Ordaindutako lana izan balitz agian ez ziren joango.

26. Obretarako jende egokiaren falta, Urdirotz uzteko arrazoietako bat

- **Erref**: ETX-042/054
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:25:55. **Bukatu**: 01:27:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Txomin: oso deseroso zegoen Urdirotz; Ordubete baino gehiagoko bidea. Elkarrizketagileak dio Urdirotz uzteko arrazoietako bat obretarako jende aski eta egokia ez aurkitzea izan zela.

27. Egunez lan, gauez parranda

- **Erref**: ETX-042/056
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 01:27:44. **Bukatu**: 01:28:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Patxi: Esperientzia polita. Lan pila. Egunez lana eta gauez parranda. Baina zortzietarako esnaturik. Elizako ezkila zen iratzargailua. Lana asko eta ondo egiten zuten. Bazkaltzeko astirik ere ez zuten batzuetan hartzen.

28. Auzolanean egindako lana gelditu egiten da

- **Erref**: ETX-042/058

- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 01:29:25. **Bukatu**: 01:31:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Udalekuak

Laburpena:
Auzolanean egindako lana gelditu egiten da. Eta ekonomikoki ere alde ederra. Eta ez eurak bakarik, berdin Antzinen, Goñin... Giro hura ikusita, eurak ere zerbait egin beharra sentitzen zuten. Gafo: eta gauzak jarraipena du. Adibidez, une honetan elkarrizketagileak ezagutzeko aukera izan dute ordukoari esker. Fermin: oraingo gazteak ez dira horrelakoetara joango, baina bai beste gauza batzuetara. Gazte jator askoak ditugu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-12

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com